

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren helburua gaur egun bizi dugun egoerari aurre egiteko irtenbidea bilatzea da, izan ere, COVID-19 dela eta badaude hainbat pertsona garraio publikoa erabiltzeari utzi diotenak, bertan kutsatu daitezkeela pentsatzen dutelako, eta, ondorioz, garraio pribatua erabiltzeari ekin diote. Hori dela eta, garraio publikoen enpresentzat kalte bihurtzeaz gain poluzioaren igoera ekarri du. Baina gure enpresa hori aldatu dadin sortu da!

Berez, gure produktua, nagusiki, bidai luzeetarako autobusak saltzen dituzten enpresentzat dago bideratuta, izan ere, geroz eta denbora gehiago pasa garraio barruan, orduan eta infektatzeko arrisku gehiago dago, autobus hauetan gertatzen den moduan. Autobus mota hauetan egiten diren bidaiak luzeak izaten dira, ordu askotakoak, eta bertako bidaiariren bat infektatuta egonez gero, hura kutsatzeko aukera gehiago ditu. Hala ere, produktuari moldaketa ugari eginda posible da beste garraio publikorentzat balio izatea.

Gure proiektua neoprenoz egindako oihal batean datza, gero garraio publikoetako eserlekuetan jarriko duguna. Behin aulki hori erabilita, neoprenoa sartu egingo litzateke eta desinfektatu, lurrun berezi baten bitartez, hurrengo bidaiariek lasaitasunez bidaiatu dezaten. Autobusetako aulki guztiek tela moduko bat dute aurrealdean, pertsona eseritzen den tokian, beraz guk, tela haren ordean, neoprenoa erabiliko dugu. Norbaitek bere bidai bukatutakoan eta eserlekuetik altxatzean, neoprenoa automatikoki eserleku barrura sartuko da eta desinfektatu egingo da, beste norbaitek erabili ahal izateko. Honekin lortu nahiko genukeena da autobusez egin ohi diren bidai luzeen bidaiariei, egoera berria dela eta, kalterik jasan ez dezaten ziurtatzea. Hau esanda, COVID-19 aren aurrean segurtasuna bermatzea eta garraio publikoaren erabilera sustatzea da gure helburu nagusia.

Neoprenoa material eroso da, normalean eserlekuetan aurki daitezkeen telen antzera, beraz ez da ezberdintasunik nabariko. Horretaz gain, praktikoa ere izango da, aurretik eserlekuetan kokatutako neoprenoa ez baita uneoro aldatu beharko. Norbait jaikitakoan eserleku barrura sartu eta desinfektatu egiten da automatikoki, horretarako ozono lurruna erabiliz, aukera on eta eraginkorra iruditu baitzaigu. Prozesu honen ondoren, bere lekura bueltatuko da.

Web orrialde bat edukiko dugu, non euskara izango da lehendabiziko hizkuntza, aurrez-aurreko tratuan bezala, Euskal Herriko enpresa bat baikara. Baina, beste hizkuntza batzuetan ere egongo da informazioa eskuragarri (gaztelania eta ingelesa), eta bezeroek, nahi izanez gero, web orrialdean aldatzeko aukera edukiko dute. Aurrez-aurreko tratuan, nahiz eta gure lehenengo hitza euskaraz izan, ez da inongo arazorik egongo bezeroek ulertuko ez balute edo beste hizkuntza batean komunikatzea nahiagoko balute.

Egoera berria denez, gure enpresa bezalakorik ez dago merkatuan. Honek ez du esan nahi kompetentziarik ez izateak lasaitzera eramango gaituenik, guztiz kontrakoa, izan ere, kompetentzia falta honek gure lana ahal den eta hoberen egitera bideratuko gaitu, beste enpresaren bat sortuko balitz muga goian egon dadin. Neoprenoz osatutako oihala neurri estandarrekoa izango da hasiera batean, hala ere, ez dugu nahi arazo bihurtzea. Horregatik, bezeroen batek beste neurri bat beharko balu gurekin harremanetan jartzea besterik ez

luke. Disenuari dagokionez, bezeroak aukeratuko du bai kolorea baita estanpatua ere, eta hau errazteko guk hainbat diseinu ezberdin eskeniko dizkiegu. Gainera, polita edota itsurosoa izango da, diseinu desberdinak egongo direlako bezeroak aukera dezan. Maketa ikusi nahiko balute, lehenengo gurekin harremanetan jarri beharko lirateke ordua adosteko egin-eginean ere, egoerak horrela eskatzen duelako. Alabaina, guregana etortzea ezinezkoa balitzaie gu joango ginateke edota produktua bidali, eta gustuko ez balute itzultzea posible izango litzateke.

Hori esanda, gure zerbitzuaren balioa kualitatiboa eta kuantitatiboa izango litzateke bezeroarentzat hoberena nahi baitugu. Horregatik, produktua ona izateaz gain prezioa ahalik eta merkeena izatea saiatuko gara, horretarako hainbat deskontu eskainiz.



